

# NESKA-MUTIL GUZTIEK BEHAR DITUZTE IRAKASLEAK

The background of the entire page features a stylized illustration. At the top right, a black silhouette of a teacher stands facing left, writing the word 'IRAKASLEAK' in large, bold, black letters on a white background. Below the teacher, a large group of diverse people, represented by colorful silhouettes in red, orange, yellow, green, and purple, are shown from the chest up. Many of these figures have their arms raised, with hands open or pointing, suggesting an active classroom or a crowd of enthusiastic participants.

Zambian, lehen hezkuntzan irakasle bakoitzak 64 ikasle ditu batez beste.  
Ugandan, irakasleen %50ek ez du trebakuntza profesional espezifikorik izan.


Lehen eta bigarren  
hezkuntzarako  
proposamen  
didaktikoa

[www.cme-espana.org](http://www.cme-espana.org)

Hitz hauek irakurtzeko gai bazara,  
eskerrak eman zure irakasleei

Munduko Ekintza Astea  
(2006ko apirilaren 24-30)

**HEZKUNTZAREN**  
Aldeko Munduko Kanpaina



# Lehen eta bigarren hezkuntzarako proposamen didaktikoa

## EDUKIAK

**AURKEZPEN GUTUNA .....1**

**SARRERA .....2**

Ohar orokorrak

Helburuak

**LEHEN HEZKUNTZA .....3**

1 Multzoa: Eskolan ikasten dena

2 Multzoa: Zer gertatuko litzateke irakaslerik ez balego?

3 Multzoa: Zergatik behar dituzte neska-mutil guztiek irakasleak?

4 Multzoa: Zer egin dezakegu?

**BIGARREN HEZKUNTZA .....13**

1 Multzoa: Ni eskolara joaten naiz, eta gainerakoak?


2 Multzoa: Kalitatezko hezkuntzaren garrantzia

3 Multzoa: Irakasleen egoera

4 Multzoa: Zer gertatuko litzateke irakaslerik ez balego?

5 Multzoa: Zer egin dezakegu?

## AURKEZPEN GUTUNA



Irakasle horiek:

Zuetako askok jakingo duzuenez, 2000. urtean, zortzi helburu nagusi proposatu zizkien Nazio Batuen Erakundeak munduko gobernu guztiei, hots, “Milurtekoko Garapen Helburuak”, gizateriak egun dituen eta etorkizunean izango dituen arazo nagusiei aurre egiteko: pobrezia eta gosea deuseztatzea, neska-mutil guztiek eskolara joateko aukera izatea, sexuen arteko berdintasuna bultzatzea eta gaixotasunik arriskutsuenei aurre egitea, besteak beste.

Helburuak oso argiak dira, baina lortzen zailak, gizarteak benetako konpromisorik hartzen ez badu. Ahal den guztia egin beharko genuke helburu horiek erdiesteko. Hori dela eta, aurrerabidearen aldeko munduko ituna lortzea da zortzigarren helburua.

**HEZKUNTZAREN ALDEKO MUNDUKO KANPAINA** mundu-itun horren adibide da, kanpaina horretan herrialde askotako eta mota guztietako milaka elkartek parte hartzen baitute.

Eta guztiek helburu bera dute: **PERTSONA GUZTIEK KALITATE ONEKO HEZKUNTZA JASOTZEKO AUKERA IZATEA.**

- 1 Pertsona guztien eskubidea delako.
- 2 Hezkuntzak pobreziatik ateratzen laguntzen duelako.
- 3 Kultura eskuratzeko eta teknologia erabiltzeko aukera ematen duelako.
- 4 Oraindik 800 milioi heldu analfabeto daude munduan, gehienak emakumeak.
- 5 150 milioi neska-mutil eskolara joaten dira, baina ez dute nahikoa denbora igarotzen oinarrizko hezkuntza amaitzeko. %55 neskak dira.
- 6 100 milioi neska-mutil baino gehiagok ezingo dute inoiz eskolara joan.
- 7 Nazio Batuen arabera, gutxienez 15 milioi irakasle gehiago beharko dira munduko pertsona guztiek lehen hezkuntza jasotzeko helburua lortu ahal izateko.

Eta zer eskatzen du HEZKUNTZAREN ALDEKO MUNDUKO KANPAINAK? Pertsona guztiek kalitatezko hezkuntza jasotzeko duten eskubidea bermatzea, eta horrela, nazioartean hartutako konpromisoak betetzea.

Horregatik, beharrezkoa da urtero **HEZKUNTZAREN ALDEKO EKINTZARAKO MUNDU-ASTEA** egitea, konpromiso hori daukagula eta bete egin behar dugula gogorarazteko.

“Neska-mutil guztiek behar dituzte irakasleak” da aurtengo Hezkuntzaren aldeko Mundu Astearen goiburua, eta apirilaren 24tik 30era egingo da. Aste horretan, garapen-bidean dauden herrialdeetako irakasleengan jarri nahi dugu arreta, beren lanbidea duin bihurtzean eta beren soldatak eta prestakuntza hobetzean. Hala, proposamen didaktiko bat egin dugu zuen lehen eta bigarren hezkuntzako ikasleekin prestatzeko. Baliagarri izango zaizuela espero dugu.

Adeitasunez,

Alboan, Ayuda en Acción, Educación sin Fronteras, Entreculturas, FE.CCOO, FETE UGT Intermon Oxfam eta STES-i.

Espainiako Ekintzarako Mundu Astearen deialdia egin duten erakundeak.

# SARRERA

## Ohar orokorrak

- Proposatutako tenporalizazioa ikastetxearen beharren arabera egoki daiteke.
- Ariketen bidez, orientabide orokorrak eman nahi ditugu bi mailatan –lehen eta bigarren hezkuntza–, baina horiek ere egoki daitezke.
- Unitate didaktikoetan “eskola” hitza erabili dugu arrazoi metodologikoengatik. “Ikastetxe” edo antzekoren bat ere erabil daiteke.
- “Irakasle” edo “maisu-maistra” terminoak erabiltzean, irakaskuntza formaleko nahiz ez-formaleko hezitzaileez, bideratzaileez... ere ari gara.
- Eduki-multzo batzuetan ariketa bat baino gehiago proposatzen da. Hala, taldearen adinaren, ezaugarrien... arabera egokiena aukera dezake irakasleak.



## Helburuak

### HMAren helburu orokorra:

Agintari politikoak eta iritzi publikoa sentsibilizatzea hezkuntzaren garrantziari eta berehala zerbait egiteko premiari buruz. Aurten irakasleengan jarriko da arreta. Batez ere hegoaldeko herrialdeei begiratuko diegu, eta herrialde horietan kalitate oneko irakasleak eskatuko ditugu.

### Proposamen didaktikoaren helburuak:

- Giza Eskubideen Adierazpenean eta Haurren Eskubideen Adierazpenean jasotako hezkuntzaren eskubidea, eskubide unibertsal eta oinarritzko gisa balioestea.
- Oinarritzko hezkuntzak pobrezia zirkulua hausteko duen garrantzia ulertzea eta kalitate oneko hezkuntza lortzeko irakasleek duten garrantziaz jabetzea.
- Hegoaldeko herrialdeetako irakasleen egoera eta egoera horrek hezkuntzaren kalitatean duen eragina ezagutzea.
- Hezkuntza-prozesuan parte hartzen duten guztien garrantzia balioestea, eta batez ere, irakasleena.
- Hegoaldeko herrialdeetako irakasleen egoera ezagutzea, eta horien egoera profesionala hobetzeko lan egitearen garrantziaz ohartzea.
- Irakasle kualifikatuen bidez kalitatezko hezkuntza jasotzeko aukera balioestea.
- Herritar aktibo gisa, bidegabeko egoerei aurre egiteko ardura hartzea eta denok zerbait egin dezakegula ulertzea.

# LEHEN HEZKUNTZA

1

**Ariketa:** Zergatik eta nola etortzen gara eskolara? Nolakoa da gure eskola?

**Irakasleentzako orientabideak:** hasierako motibazioa pertsona baten historiaren bidez eta norbere esperientziari buruzko hausnarketa.

## 1 MULTZOA: eskolan ikasten dena

### Helburua:

Eskolatzearen garrantzia eta horrek pertsonen bizimoduan eta gizarteetan dituen ondorioak identifikatzea.

### Edukiak

#### Kontzeptualak

Eskolara joatearen onurak (sozialak, afektiboak, kognitiboak, lan- eta osasun-arlokoak).

#### Jarrerazkoak

Kalitate oneko hezkuntza jasotzeko aukera positiboki balioestea.

Besteen egoerarekiko enpatia eta errespetua.

### Prozedurazkoak

Gertuko egoerari buruzko elkarriketa eta azterketa, ondorioak ateratzea.

Informazioa trukitzea.

Ulermenezko irakurketa.

### Ariketak

1. Zergatik eta nola etortzen gara eskolara? Nolakoa da gure eskola?
2. Nagusia naizenean ... izan nahiko nuke.
3. Zer ikasi dugu eskolan?



Kaixo, Dires naiz, zortzi urte ditut eta Tanzaniako herri batean bizi naiz.

Asko gustatzen zait eskolara joatea; hau da nire lehenengo ikasturtea. Dibertigarria da, eta gainera, nire lagunekin egoten naiz. Ez dakit nagusitan zer izan nahi dudana. Ez dut horretan pentsatu. Agian, albaitaria izan naiteke. Nire arreba Linak irakaslea izan nahi du. Animaliak aztertzea eta futboleko jokatzeko gustatzen zait gehien.

- Eta zuei, eskolan zer egitea gustatzen zaizue gehien?

Nire herrialdea oso beroa da, eta eskolara joaten garenean, urez betetako bidai bat eramaten dugu handik edateko, eskolan ez dago urik eta.

- Eta zuek, urik eramaten duzue eskolara?

Herriko guztiak eskola bat eraikitzen ari gara. Neska-mutilok egurra, lurra eta ura eramaten ditugu. Horrela, etxetik gertu izango dugu eskola, eta ez dugu bi orduko bidea egin beharrik izango.

- Nolakoa da zuen eskola? Marrazki bat egin dezakezue, nik nolakoa den irudikatzen.



Marraztu zure hausnarketak lan-fitxa honetan.

**LAN-FITXA** Zergatik eta nola etortzen gara eskolara? Nolakoa da gure eskola?

**1** Nire eskola marraztu dut.

**2** Pentsatzen eta idazten dut:

*Zergatik etortzen gara eskolara?*

*Zer egiten dugu eskolan?*

*Zer da nahitaezkoa eskola bat egon  
dadin? Zergatik?*

**1** Eskolara sartzen marraztu dut neure burua.

**2** Pentsatzen eta idazten dut:

*Nola iristen naiz eskolara?*

*Pozik, triste, nekatuta, gogoz...?*

# 2

**Ariketa:** Nagusia naizenean ... izan nahi nuke.

**Irakasleentzako orientabideak:** Eskolatzek etorkizunean dituen onurak zehazteko talde-dinamika. Aurreko bi galderek taldeko hausnarketa bultzatzeko balio behar dute, hurrengo ariketa egiten hasi baino lehen.

Diresek albaitaria izan nahi du, Linak irakaslea... eta zuk?

- Zer izan nahiko zenuke nagusitan?
- Zure ustez, zer egin behar duzu hori lortu ahal izateko?

## Etorkizunari buruzko testa

Hiru taldetan banatu eta talde bakoitzari kartel bat banatu:

- Talde gorria: Irakurtzen eta idazten jakin gabe egin daiteke.
- Talde berdea: Irakurtzen eta idazten jakinez gero bakarrik egin daiteke.
- Talde horia: Irakurtzen eta idazten jakinez gero, hobeto egin daiteke.

Orain, irakurri lan hauek, eta lan bakoitza zer karteletan jarri behar den adostu:

- Arropa garbitu.
- Gaixo bati sendagaia eman.
- Autoa gidatu.
- Lurra landu.
- Bankura joan eta dirua mailegatzeko eskatu.
- Hauteskundeetan botoa eman.
- Bakarrik bidaiatu.
- Gobernuko presidente izan.
- Arazoei irtenbideak bilatu.

**Aukerakoa:** Lan gehiago pentsa ditzaten eska dakieke. Ziur aski, beren adinetik gertuago dauden lanak aipatuko dituzte, irakurtzeko eta idazteko behar handirik eskatzen ez dutenak, batez ere, maila baxuenetan. Beraz, nagusiagoak direnean egingo dituzten jarduerak pentsatzen lagundu beharko zaie.

**Irakasleentzako orientabideak:** Garrantzitsua da egindako baieztapen guztiak justifikatzea eta arrazoitzea ikasleek. Ariketa hori horma-irudi bihur daiteke eta, horrela, gela guztirako erreferentzia modura eduki.

# 3

## Ariketa: Zer ikasi dugu eskolan?

**Irakasleentzako orientabideak:** Eskolak eman diena aitortzeko ariketa da. Banaka egin behar da, eta ondoren, talde guztiarekin batera eztabaidatu beharko da.

Eskolan eta irakasleengandik ikasi dutenari buruzko koadro hau osatzen laguntzeko eskatu ikasleei. Ondoren, hausnartu eskolara joaten diren neska-mutilek dituzten aukerei eta ikasketei buruz. Hausnarketa zabalagoa izateko, gustatzen zaizkien eta gustatzen ez zaizkien eskolako gauzak ere esan ditzakete. Batez ere lehenengo koadroko galderetan arreta jartzea gomendatzen dugu, alegia, eskolan eta irakasleengandik ikasi dituzten gauzetan.

Zer ikasi dugu eskolan?

Zer ikasi dut nire irakasleengandik?

Zer du eskolak atsegin dudana?

Zer du eskolak atsegin ez dudana?



## 2 MULTZOA: Zer gertatuko litzateke irakaslerik ez balego?

### Helburua:

Hezkuntzarik ez jasotzeak dituen ondorioei buruz hausnartzea.

### Edukiak

#### Kontzeptualak

Eskolara joaterik ez balute beren bititza nolakoa izango litzatekeen idaztea.

Irakaslearen eginkizuna.

#### Jarrerazkoak

Guztion hezkuntza-eskubidea defendatzea.

Hezkuntza balioestea eta etorkizun justuagoa eraikitzeko norberaren eta gizartearen konpromisoari garrantzia ematea.

### Prozedurazkoak

Irudimena lantzea eta hausnarketa.

Taldeko eztabaida.

### Ariketak

1. Nolakoa izango litzateke zure bititza irakaslerik gabe?
2. Zer gertatuko litzateke eskolan irakaslerik ez balego?

# 1

## 1. Ariketa: Nolakoa izango litzateke zure bititza irakaslerik gabe?

**Irakasleentzako orientabideak:** Eskolara joaterik ez balute ikasleen bititza nolakoa izango litzatekeen idazteko taldeko ariketa.

Banatu gela 4 edo 5 ikasleko taldetan. Eska iezaiezu irudika dezatela nola izango litzatekeen beren bititza eskolara joaterik izan ez balute, eta esan iezaiezu idazlan edo irudi baten bidez adierazteko.

Idazlana edo marrazkia amaitu ondoren, interesgarria izango litzateke ikasle bakoitzak gainerakoei azaltzea nolakoa izango litzatekeen bere bititza eskolara joan izan ez balitz. Ondoren, eztabaida sor daiteke eta, horrela, gehiago hausnartzen lagundu. Nolakoa izango litzateke mundua pertsonen hezkuntza jasotzeko eskubiderik izango ez balute? Eskolara ezin joateak zer ondorio ekarriko litzakizuke zuei eta zuen familiei?...

# 2

## 2. Ariketa: Zer gertatuko litzateke eskolan irakaslerik ez balego?

Imajina ezazu egun batean eskolara joan... eta ez dagoela irakaslerik.

Denon artean egin zerrenda bat horrek izango lituzkeen onurekin eta beste bat sortuko lituzkeen eragozpenekin.

**Irakasleentzako orientabideak:** Gerta daiteke abantaila gehiago ateratzea, irakaslerik ez egotea araurik ez egotearekin identifika baitezakete. Kasu horretan, merezi du hainbat arauen zergatia aztertzea, eta irakasleak bitartekari gisa duen zeregina aztertzea. Erabilgarria da bititako egoerak aipatzea, eta irakaslerik egon ez balitz nola konponduko ziratekeen azaltzea.

### 3. MULTZOA: zergatik behar dituzte neska-mutil guztiek irakasleak?

#### Helburua:

Irakasleak ikaslea hazteko prozesuan duen garrantzia balioestea.

#### Edukiak

##### Kontzeptualak

Irakaslearen irudia, funtzioak, zereginak.

Irakaslearen irudia beste herrialde batzuetan.

##### Jarrerazkoak

Irakaslearen garrantzia positiboki balioestea.

#### Prozedurazkoak

Gutun bat idaztea.

Ikerketa – elkarriketa, inkestak.

#### Ariketak

1. Zein dira irakasleak?

2. Zergatik behar dituzte neska-mutil guztiek irakasleak?

1

#### 1. Ariketa: Zein dira irakasleak?

Ikasleek irakasleen irudia eta haien hezkuntzan duten garrantzia balioesteko ariketa da. Halaber, munduko irakasle guztiek eginkizun bera dutela kontura daitezen da helburua.

**Irakasleentzako orientabideak:** Lehenik eta behin, idatzi galdera hau arbel handian: **ZERGATIK BEHAR DITUZTE NESKA-MUTIL GUZTIEK IRAKASLEAK?**

Erantzunak arbelean idatzi. Munduko leku askotan oso irakasle gutxi dago neska-mutil askorentzat, oso diru gutxi ordaintzen diete edo ez diete batere ordaintzen, irakasle askok ezin dute prestatu eta behar duten adina ikasi, eta irakasle horiek erantzukizun handia dute gizarteak asko espero duelako haiengandik, baina gizarte horietan ez dira errespetatzen irakasleen eskubideak. Hala ere, azpimarratu behar dugu garrantzitsua dela neska-mutil guztiek irakasle bat edukitzea hazteko eta hezteko.

Bigarrenik, hausnartu ikasleekin argazkietako irakasleak egiten ari direnari buruz. Pentsarazi ikasleei. Zer ari dira egiten irakasleak? Zer dira irakasleak? Zergatik dira garrantzitsuak neska-mutilen bizitzan?

Ondoren, esan irakasleei lehenago izan zituzten irakasleak gogora ditzatela eta azal dezatela irakasle haien zein ezaugarri gustatzen zitzaizkien eta zein ez zitzaizkien gustatzen, ikasgalez gain zer ikasi zuten... Irakasleak bere irakasleei buruz ere hitz egin dezake, zein gustatu zitzaizkion gehien, zer gustatzen zitzaion gehien, zer ikasi zuen haiengandik...

Eskatu gehien gustatu zitzairen irakasleari gutun bat idazteko, irakatsi zizkien gauzengatik eskerrak emateko. Irudi bat ere egin diezaioke.

Etxeko lanak: familiakoei galdetu zer irakasle izan zituzten eta zein zituzten gogokoen.

## 2

### 2. Ariketa: Zergatik behar dituzte irakasleak neska-mutil guztiek?

**Irakasleentzako orientabideak:** Neska-mutil guztiek irakasleak zergatik behar dituzten konturatzeko ariketa da. Ikasleei gogorarazi ordura arte zer pauso eman diren: batetik, eskolara joan izan ez balira eta heziketarik izan ez balute zer gertatuko litzatekeen konturatzeko eta, bestetik, irakaslea zer den adieraztea. Hurrengo pausoa da aztertzea zergatik behar dituzten irakasleak neska-mutil guztiek.

Banatu ikasleei 2. lan-orria eta aztertu marrazkiak.

- *Nork erakutsi zigun irakurtzen?*
- *Nork erakutsi zigun idazten?*
- *Nork erakutsi zigun kontuak egiten?*

4 edo 5 ikasleko taldetan banatzeko ere eska diezaiekegu, eta antzerki bat prestatzeko eskatu. Antzerki horretan ikasle bakoitzak irakaslearena egin behar du, eta besteei zerbait irakatsi.

Irakasleek erakusten dizkiguten gauza guztiez jabetzen laguntzea da helburua.

Ondoren, galdera hau egin:

- *Zer gehiago irakasten digute irakasleek?*


Galdera horren bidez, curriculumeko edukiez gain irakasleek irakasten dituzten gauza guztietan pentsatzea lortu nahi da.

Eskola amaitzeko, galdera honi erantzuten dion idazlana idazteko eskatu: Zergatik behar dituzte irakasleak neska-mutil guztiek?

## LEHEN HEZKUNTZA

Begiratu hurrengo irudiak eta deskriba itzazu.

2. lan-orria: Nork erakutsi zigun irakurtzen? Nork erakutsi zigun idazten?  
Nork erakutsi zigun kontuak ateratzen?



## 4. MULTZOA: zer egin dezakegu?

### Helburua:

Irtenbideak eta konpromisoak identifikatzea GH lortzeko (Guztionezko Hezkuntza).

### Edukiak

#### Kontzeptualak

MH (milurtekoko helburuak), irakasle-beharra, agintariei konpromisoa eskatzea.

#### Jarrerazkoak

Parte-hartzea, ardura, arazo kolektiboetan edo bidegabeko egoeretan inplikatzeko.

### Prozedurazkoak

Talde-lanak: hausnarketa, elkarrikeria, eztabaida eta ekintza.  
Txostenak egitea.

### Ariketak

1. Zer egin dezakegu?
2. Azal diezaiegun agintari politikoei irakasleen egoera.

## 1

### 1. Ariketa: Zer egin dezakegu?

**Irakasleentzako orientabideak:** Lehenik eta behin, proposatu ikasleei matematiketan zatikiei buruz ikasi dutena aplikatzeko eta emango zaizkien datuak zirkuluetan adierazteko. Helburua da kalitatezko hezkuntza jasotzeko aukerari buruz munduan dagoen injustizia islatzen duen grafikoa egitea.

#### Pentsatu eta marraztu:

Gaur egun, **100 milioi neska-mutil** baino gehiago ez dira eskolara joaten.

Munduko populazio helduaren **1/5ek ez du hezkuntza jasotzeko** modurik eta ez daki irakurtzen eta idazten.

**Estatu Arabiarretan**, gutxi gorabehera populazioaren 3/5ek daki irakurtzen eta idazten.

Herrialde hauetan daude alfabetatze-mailarik baxuenak:

Burkina Faso: %13k daki irakurtzen eta idazten.

Niger: %14,4k daki irakurtzen eta idazten.

Mali: %19k daki irakurtzen eta idazten.

Txiki-txikitik neskek diskriminazioa jasaten dute, gutxiago joaten baitira eskolara. Eta, oro har, neska horiek egoera berean jarraitzen dute bizitza osoan. Gaur egun, munduko pertsona eskolagabeen %64 emakumeak dira. Bolivian, Guatemalan eta Perun, 100 gizon alfabetatuko 90 emakume alfabetatu baino gutxiago daude.

Afrikan, lehen hezkuntzako **3 milioi irakasle** gehiago behar dira.

Txinako eta Tunisko irakasleen **%20k** baino gutxiagok du unibertsitateko prestakuntza.

Tanzaniako eta Cabo Verdeko **irakasleen %60k** lehen mailako ikasketak bakarrik egin dituzte.

Ugandan, Togon eta Cabo Verden, irakasleen %50ek soilik jaso du prestakuntza profesional berezia.

Bangladeshko irakasleek 30 eskola-ordu izaten dituzte astero, eta Espainiakoeak 20.

Ondoren, ikasleei gogorarazi, neska-mutilak hezteko, irakatsiko dieten irakasleak behar direla.

Hausnartu egoera hori aldatzeko egin dezakegunari buruz. Ideiak bota, eta Ekintzarako Mundu Astean parte hartzea proposatu.

**Zer egin dezakegu?**

Eskatu ikasleei herritar gisa munduko hezkuntzaren egoera hobetzeko egin dezakegunari buruz hausnartzeko. Ideiak kartoi mehe batean idatzi, eta betetzeko konpromisoa hartu:

## 2

### 2. Ariketa: Azal diezaiegun agintari politikoei irakasleen egoera

Ariketa honen helburua da Ekintzarako Mundu Astean agintari politikoei aurkeztuko zaizkien txostenak egitea.

Ekintzarako Mundu Astean, mundu guztiko neska-mutilek irakasleen egoerari buruz egin dituzten hausnarketak aurkeztuko dizkiete agintari politikoei.

Halaber, aste horretan, hainbat jarduera egingo dira Espainian, agintariei irakasleen egoera erakusteko.

Proposamen didaktiko honen bidez egindako hausnarketen eta lanaren ondorioak txostenean, pankartan, posterrean edo zure eremurako adierazitako formatuan jasoko dira. Lan hori banaka edo taldeka egin daiteke, eta ikasleek nahi duten teknika eta euskarria erabil ditzakete (plastika, ikus-entzunezkoa...). Irakasleek sormena eta irudimena bultzatu behar dituzte.

Idea hauek proposatzen ditugu:

- Irakasle bat behar dugu zeren...
- Bidali irakasle bat nire lagunari
- Nire lagunak ez dauka irakaslerik zeren...
- Irakasleak ezinbestekoak dira guztiok kalitatezko hezkuntza izateko zeren...

Dena den, erakundeak jakinaraziko du ikastetxe bakoitzaren eremuan zer jarduera egingo den Ekintzarako Mundu Astean eta nola parte hartu behar den.

# BIGARRREN HEZKUNTZA

## 1. MULTZOA: Ni eskolara joaten naiz, eta gainerakoak?

### Helburua:

Ikasleek hezkuntzarekiko duten jarrera identifikatzea.  
Hezkuntzak beren bizitzaren garapenean duen garrantzia aitortzea.

### Edukiak

#### *Kontzeptualak*

Gogobetetzen dituzten eta ez dituzten eskolako ezaugarriak.  
Eskola idealaren definizioa.  
Eskolara ez joatearen ondorioak.

### *Jarrerazkoak*

Norberaren hezkuntza-aukerak eta kalitatezko hezkuntza jasotzeko aukera positiboki balioestea.

### *Prozedurazkoak*

Datuak aztertzea, talde-lana eta besteen egoerarekiko enpatia eta errespetua.

### *Ariketak*

1. Ni eskolara / institutura joaten naiz!
2. Guztiok joaten gara eskolara?

1

### 1. Ariketa: Ni eskolara /institutura joaten naiz!

#### 1.1. DBHko lagunek zer pentsatzen dute beren eskolari buruz?

Gela 5 bat pertsonako taldetan antolatu, eta taldeei izena jartzeko eskatu. Talde bakoitzak azterketa bat egin behar du ikaskideei gustatzen zaizkien eskolako gauzei buruz, irakasleek ere jakin nahi baitute zer den ikasleek aldatuko luketena. Horretarako, inkesta bat egitea proposatu.

Talde bakoitzak hiru galdera proposatuko ditu inkestarako. Talde guztien galderak elkartu, eta ikasleen ustez inkestarako egokienak direnak aukeratu. Galdera errazak izan behar dute, eta ez asko.

Inkesta eskolako DBHko ikasle eta irakasleei eman bete dezaten, eta gero, datuak aztertu eta emaitzak batu.

Azkenik, galdera hau egin ikasleei: Zer egin dezakegu gutxien gustatzen zaizkigun gauzak aldatzeko? Zer ezaugarri izango lituzke gure "eskola idealak"?



## 1.2. Eta zuek? Zer pentsatzen duzue? (aukerakoa)

Ariketa hau aukerakoa da. Inkestaren emaitzak bildu ondoren, gelaren iritzia ezagutzeko erabil daiteke.

Banatu bitan gela edo aretoa: paretaren alde batean, ados daudenak eta, bestean ados ez daudenak (ariketa kanpoan eginez gero, bitan bana daiteke jolastokia). Ikasleek erdian jarri behar dute, paretekiko lerro paraleloa osatuz. . Irakasleak esaldi kategoriko bihurtzen ditu inkestako galderak, eta esaldi bakoitza ozen irakurtzen du. Ikasleek paretatik gertuago edo urrutirago jarri behar dute, esaldi horrekin ados egotearen edo ez egotearen arabera. Ikasleak alde banatan jarri ondoren, anima itzazu elkarrekin hitz egin dezaten aukera bat ala bestea egiteko arrazoiari buruz. Ikaskideen arrazoiak entzun ondoren, posizioa alda dezakete edo lehengoan jarraitu.

## 2

### 2 Ariketa: Guztiok joaten gara eskolara?

Banatu gela 3 pertsonako taldetan, eta bakoitzari testigantza bat eman. Pertsona bakoitzak kasu bat irakurriko du, eta beste ikaskideei azalduko die. Hiru historien arteko berdintasunak eta ezberdintasunak adierazi behar ditu taldeak. Gero, kasuak alderatu ondoren ateratako ondorio harrigarrienak azaldu behar dizkiete gainerako ikaskideei, eta guztien artean hausnartu behar dute eskolara joatearen garrantziari buruz eta egoera bakoitzak pertsonaren bizitzaren garapenean izan ditzakeen ondorioei buruz.

Taldeak laguntza behar badu kasuak alderatzeko, laguntza hauek eman daitezke:

- Alderatu Felistus-en, Fao-Fang-eko langileen eta Mikelen egun arrunt bat zure egun arrunt batekin. Idatzi ezaugarririk garrantzitsuenak.
- Idatzi pertsona horietako bakoitzaren egoera azal dezaketen arrazoiak. Horretarako, pertsona bakoitzaren herrialdeko bizimoduari eta egoera horien eragileei buruzko informazioa bila daiteke.
- Lehen eta bigarren hezkuntza jaso ahal izateak zer ematen dio pertsonen bizitzari?

#### Felistus-en historia (Zambia)

**Felistus** egunero joaten da eskolara etxeko lanak egin ondoren. Haren ama Patricia egur bila joaten da, eta Felistusek eta bere anaiak jana ematen diete oiloei eta ur bila joaten dira. Goiz jaiki behar izaten dute eskolara garaiz iristeko.

Eskolan, lurrean esertzen dira, ez baitago aulkirik. Bakoitzak asko zaintzen du bere koadernoak eta arreta handia jartzen diote irakasleari. Batzuetan, irakaslea ez da eskolara joaten, boluntarioa baita. Izan ere, gobernua ezin die ordaindu herrialdeko irakasle guztiei.

Felistus ibaiari begira jartzen denean, aldatzea gustatuko litzaiokeen gauzeekin amesten du. Zambeze ibaiaren ertzean eseri, eta eguzkia sartzen ikustea da Felistusi gehien gustatzen zaiona. 13 urte ditu, eta bidaiatzearekin eta beste herrialde batzuk ezagutzearekin amesten du.

Felistusek badaki irakurtzen eta idazten ikasten badu eta matematiketan abila bihurtzen bada bere bizitza aldatu egingo dela, eta bizitza hobea izateko aukera izango dutela berak eta bere herriak.

## Fao-Fang-eko langileak

**Hondurasen ia 90.000 pertsonak** egiten dugu lan ehungintzako fabriketan, eta gehienak emakumeak eta gazteak gara (16 eta 18 urte artekoak). Horrexegatik eman ziguten lana, oraindik gazteak garelako eta nagusiek esaten dute-lako emakumeok ez dugula hainbeste arazo sortzen, gure eskubideak aldarrikatzeko eta antolatzeoko ohitura gutxiago dugulako. Gainera, gazteak gara, eta hori ona da haientzat. Nagusiak lehenengo egunean hala esan zigun: "nagusia-goak bazinate, ez zenukete erritmoa jasango".

Gure lantegia soto handi bat da, eta zementuzko paretak eta uralitazko teilatua ditu. Fao-Fangeko nagusiak Hondurasko enpresaburu ezagun bati erosi dion lur-eremuan dago. Ez dago ia leihorik, barruan bero jasanezina egoten da, eta lanean egiten ditugun 12 orduetan ez dugu urik edaten eta ez dago atseden hartzeko aukirik. Arrazoi batek bakarrik bultzatzen gaitu hemen lan egitera: gure herrietako lurra lantzen lan egingo bagenu ezingo genuke lantegian irabazten dugun adina irabazi, eta guztiok daukagu gure dirua behar duen familia bat.

Gauean, lantegitik etxera itzultzen naizenean, pentsatzen egoten naiz nola-koa izango litzatekeen nire bizitza txikitik eskolara joan ahal izan banu. Eskolara joan izan banintz lan duin bat izango nuke eta hobeto ezagutuko nituzke ehungintzako fabriketako langileon eskubideak. Gainera, gaitasun gehiago izango nuke lantegiko langile guztien lan-baldintzak hobeto daitezen eskatzeko.

Etixerako bidean, noizbait helduen prestakuntzarako eskolara joatearekin amesten dut, nire eskubideak hobeto ezagutzeko eta garapen pertsonal handiagoa izateko.

## Mikel

**Goizero bezala, Mikel** gogorik gabe doa da institutura, eta eskolak amaitzeko ordua noiz helduko zain egoten da, auzoko futbol-zelaira joateko. Oso ondo pasatzen du ikaskideekin futbol-partidak jokatzeko. Institutuan ezagutu dituen lagunekin elkartzen denean ere oso ondo pasatzen du. Bai ondo pasatzen duela...

Hizkuntza, matematikak, literatura, natura-zientziak... ez zaizkio hain erakargarriak iruditzen. Izan ere, irakasleak oso monotonoak dira azalpenak ematen dituztenean eta, gainera, ez du ondo ulertzen azalpen horiek eguneroko bizitzan zer erabilgarritasun duten. Eta, horrez gain, azterketak...; norbaitek sinesten du, guztia bezperan ikasita, handik bi astea zerbaitekin gogoratuko dela? "Hezkuntza-sistemak ez dauka zentzurik" esaten du Mikelek behin eta berriz.

Baina lehenengo astean zerbait aldatu zen Mikelen baitan. Venezuelan bi urte igaro dituen mutil gazte bat ekarri zuen gelara gizarte-zientzietako irakasleak. Hango herri bateko komunitate-lanetan laguntzen aritu da. Mutil hark ilusio handiz kontatu zien ikasteak zer garrantzi duen eta zer lan egin zituzten komunitatearen alde hizkuntzan, natura-zientzietan... jasotako jakintzen bidez.

Talde-dinamikak, eztabaidak eta bateratze-lanak eginez, Mikel eta bere lagunak hausnarketa egin zuten curriculum-arlo bakoitzak hobekuntza pertsonalean dituen aplikazioei buruz eta jasotako ezagutzei buruz. Dugarik gabe, egun hartan, zerbait aldatu zen Mikelen pentsatzeko moduan.

## 2. MULTZOA: Kalitatezko hezkuntzaren garrantzia

### Helburua:

Hezkuntzaren garrantzia eta horrek pertsonen bizimoduan eta gizarteetan dituen ondorioak identifikatzea.

### Edukiak

#### *Kontzeptualak*

Eskolara joateak pertsonaren garapenerako dituen onurak (sozialak, afektiboak, kognitiboak, lan- eta osasun-arlokoak).

Pertsona guztientzako kalitatezko hezkuntzaren beharra.

#### *Jarrerazkoak*

Hezkuntzak pertsonen garapenean duen garrantzia balioestea.

Pertsona guztientzako kalitatezko hezkuntzaren beharra defendatzea.

### *Prozedurazkoak*

Inguruko egoerari buruzko elkarriketa eta azterketa.

Informazioa trukitzea.

Datuak alderatu eta aztertzea.

### *Ariketak*

1. Hezkuntzak zer ondorio ditu pertsonengan?
2. Hezkuntzak zer ondorio ditu herrialdeetan?
3. Hezkuntza bai, baina... zer hezkuntza?

# 1

## 1. Ariketa: Hezkuntzak zer ondorio ditu pertsonengan?

Eskatu ikasle bakoitzari bere inguruko egoera aztertzeko:

- Lehen edo bigarren mailako ikasketak egiteko aukerarik izan ez duen pertsonaren bat. Galdetu pertsona horri zergatik ez zuen ikasi, eta, bere ustez, zer ondorio izan dituen horrek bere bizitzan (alor profesionalean, sozialean, pertsonalean...).
- Ikasketak egin dituen pertsonaren bat. Galdetu zergatik izan zuen aukera ikasteko, eta, bere ustez, zer ondorio izan duen horrek bere bizitzan.

Ikasleen erdiak kasu bakoitzari buruzko ikerketa egin dezan saiatu.

Ondoren, elkarriketa guztiak azaldu, eta adierazi zer esaldik edo ideiak harritu dituen gehien eta hezkuntzak zer ondorio nagusi dituen pertsonen bizitzan. Ondorio horiekin, hezkuntzak pertsonengan duen garrantziari buruzko dekalogoia egin daiteke.

## 2

**2 Ariketa: Hezkuntzak zer ondorio ditu herrialdeetan?**

Eskatu ikasleei hezkuntzaren egoerari buruzko azterketa zehatzagoa egin dezaten, herrialdeen arabera. Edozein herrialde aukera daiteke edo, bestela, eskolako ikasleen, auzokideen... herrialdeak.

Herrialdeak aukeratu ondoren, eskatu ikasleei NBPGr<sup>1</sup> ([www.undp.org/spanish](http://www.undp.org/spanish)) giza garapenerako txosteneko herrialdeei buruzko estatistikak aztertzeko. Lotu datu horiek herrialde bakoitzaren BPGrekin eta, ondoren, giza garapenaren indizearekin (GGI). Atera herrialdeetako hezkuntzari buruzko ondorioak.

Ondoren, ondorio horiek posterretan irudika ditzaten eskatu, eta informazio hori eskolako pasilloetan jarri, ikasle guztiek ezagut dezaten.

<sup>1</sup> Nazio Batuen Garapenerako Programa.

## 3

**3 Ariketa: Hezkuntza bai, baina... zer hezkuntza?**

**Irakasleentzako orientabideak:** Hasteko, eztabaida labur bat egin galdera hauetaz buruz: Edozein hezkuntza-mota baliagarria da? Badago kalitatezko hezkuntza batek izan beharko ez lukeen ezaugarririk? Zuen ustez, zer alderdik eragiten dute hezkuntzaren kalitatean?

Ondoren, eskatu ikasleei banaka ondorengo testuak<sup>2</sup> irakurtzeko. Testu horien bidez, kalitatezko hezkuntzari buruzko hausnarketa bultzatu nahi da. Eztabaida daiteke hezkuntza kalitatezkoa izateko ea azpiegiturak eta hezkuntza jasotzeko aukerak bakarrik behar diren edo zerbait gehiago behar den.

<sup>2</sup> Aztertutako hezkuntzaren GLOtik ateratako testuak. *Entreculturas eta Alboan, 2005.*

"Garapenerako laguntzak hezkuntzaren ikuspegi bakuna du, oro har: azpiegiturak, ekipamenduak, material didaktikoa edo irakasleentzako prestakuntza nahikotzat jotzen ditu. Hori guztia behar-beharrezkoa da, lortzen erraza eta garestiagoa edo merkeagoa izan daiteke, baina ez du bermatzen ikasleek hezkuntzarako behar diren ikasketak jasoko dituztenik. Modu iraunkorrean kalitatezkoa den hezkuntza lortzea askoz ere konplexuagoa eta zailagoa da".

"Nabarmena da hezkuntza jasotzeko eskubideak eragin zuzena duela beste eskubide batzuetan, eta beraz, hezkuntza lehen mailako faktorea da garapenerako. Hala, munduko herrialde guztietan oinarritzko eskolatzea lortzea ez da nahikoa hezkuntza-eskubidetzat ulertzen duguna bermatzeko. Izan ere, hezkuntza-eskubidea diogunean, pertsona batek bere bizitza guztian ikasteko duen eskubideaz ari gara, eta horretarako, hezkuntza kalitatezkoa izatea ezinbestekoa da giza eskubide horretaz gozatu ahal izateko. Kalitatezko hezkuntzarik gabe, ez dago garapenerako aukerarik".

## BIGARREN HEZKUNTZA

"Kalitatezko oinarritzko hezkuntza edozein adinetan jasotzeko eskubidea, giza garapenerako funtsezko tresna izateaz gain, pertsona guztiek gizaki moduan duten eskubidea da. Baina pobrezia edo bazterketa jasaten duten milioika neska-mutil, gazte eta helduek ez daukate eskubide hori".

"Irakasleen prestakuntza eta egoera oinarritzko elementuak dira irakaskuntza kalitatezkoa izateko, eta horrekin batera, hezkuntzak dituen baliabideak, diru-kopurua eta ekipamenduak, hezkuntza-komunitatearen parte-hartzea... ere beharrezkoak dira. Kalitatezko hezkuntza bermatzeko, arlo guztiak hartu behar dira kontuan eta gobernuko sektoreek elkarrekin jardun behar dute, egoeraren arabera akordioetara, soldata igoera apaletara edo estatutu profesionalak aldatzeko proiektuetara mugatu gabe. Alegia, modu integralean jardun behar da. Eta, horrez gain, prestakuntza jarraituari eta irakasleen hobekuntzari ere garrantzia eman behar zaie, eskaria eta ikasleen eta ingurunearen aukerak bat etorriko direla bermatzeko. Adituen arabera, irakaskuntza hobetzeko politikek irakasleen prestakuntzan oinarritu behar dute. Herrialde askotan, hasierako prestakuntzaren eta prestakuntza iraunkorraren ereduak berrikusi beharrean daude".

Eskatu ikasleei ondorengo koadroa betetzeko, testuak oinarri gisa hartuta eta ikasleei bururatzen zaizkien beste alderdi batzuk gaineratuta. Gero, taldeka egin behar dute lan koadroa osatzeko.

Azkenik, eskatu gelako ikasle guztiei talde guztien koadroak batera jarri ondoren kalitatezko hezkuntzaren aldeko adierazpena idatz dezaten.

### Kalitatezko hezkuntzaren faktore erabakigarriak

- 
- 
- 
- 
- 
- 
- 
- 
-

### 3. MULTZOA: Irakasleen egoera

#### Helburua:

Irakasle falta sortzen duten arrazoiak –batez ere, hegoaldeko herrialdeetan– ezagutzea.

#### Edukiak

##### Kontzeptualak

Munduan pertsona askok kalitatezko hezkuntza jasotzeko aukerarik ez izateak dituen ondorioak.

Mundu guztiko irakasleen egoeraren azterketa.

##### Jarrerazkoak

Guztion hezkuntza-eskubidea defendatzea.

Hezkuntza balioestea eta etorkizun justuagoa eraikitzeko norberaren eta gizartearen konpromisoari garrantzia ematea.

#### Prozedurazkoak

Besteen egoerarekiko enpatia eta errespetua.

Talde-lana.

Datuak aztertzea.

#### Ariketak

1. Zein da munduko irakasleen egoera?
2. Irakasle batek zer baldintza behar ditu bere lana ondo egiteko?

## 1

### 1 Ariketa: Zein da munduko irakasleen egoera?

*Nazio baten handitasuna eta eskuzabaltasuna bere herritarren baitan dago... Irakasleek osatzen dute nazio baten jarreretan, ideietan eta helburuetan eragin handiena duen herritar-taldea.*

*Julius Nyerere-ren "The Power of Teachers", 1966*

Eskatu ikasleei ondorengo testua irakurtzeko eta, ondoren, galderei erantzuteko, lehenik banaka eta gero taldeka.

#### Yherlin Vilchez Nikaraguako landa-eremuko irakaslearen historia

**Yherlin Vilchez** Nikaraguan jaio zen, erdi-mailako klaseko familia batean. Txikitan eskolara joan bazen ere, aita hil zenean, ikasi eta lan batera egin behar izan zituen, amari eta anai-arreba txikiei lagundu ahal izateko.

Hala, Yherlinek hainbat lan egin zituen (ogia eta galletak saldu), baina, hala ere, ez zion utzi eskolara joateari. Bere ahaleginari eta irmotasunari esker, lehen hezkuntza amaitu, eta bigarren hezkuntzarekin jarraitu zuen. Gainera, boluntario aritu zen alfabetatze-programa batean.

Hemezortzi urterekin batxilergoko ikasketak amaitu zituen, eta landa-eremuko eskola batean hasi zen lanean lehen hezkuntzako irakasle modura. Yherlinek interes handia azaldu du beti prestakuntza-ikastaroetara joateko eta, hala, bere irakasle-lana hobetzeko.

## BIGARREN HEZKUNTZA

Nikaraguako irakasleek 36 ikasle izaten dituzte batez beste gela bakoitzeko, eta oso soldata txikiak jasotzen dituzte. Lehen hezkuntzako irakasle batek 55 euroko soldata du eta bigarren hezkuntzako batek 58 eurokoa. Oinarrizko beharretarako 128 euro behar dira Nikaraguan, eta beraz, irakasleek ez dute nahikoa soldata jasotzen beren oinarrizko beharrak asetzeko. Gehienek ezin dute etxebizitzarik erosi, ez dute bizi-asegururik, eta sendagaiak eta materialak lortzeko zailtasunak dituzte.

Hori dela eta, irakasle askok bi lan egiten dituzte, beren beharrak ase ahal izateko. Yherlinek lan egiten duen eskolan 31 irakasle daude, eta horietatik %33k bi lan egiten dituzte. Yherlinek ere bi lan egiten ditu egunero, eta gainera, Hizkuntza eta Literatura Hispaniarra ari da ikasten unibertsitatean. "Prestatuz eta gehiago hobetuz soilik lortuko ditut aukera hobeak", dio Yherlinek.

Yherlin Vilchez, irakaslea, Fe y Alegría - Nikaragua.

Lehen hezkuntzako irakasleak: bakoitzak 36 ikasle (1996)

### Galderak

- Zure ustez, Yherlin zergatik hasi zen lanean landa-eremuko eskola batean batxilergoa amaitu ondoren? Behar adinako prestakuntza zuela uste duzu? Zergatik?
- Yherlin Vilchezek eta beste irakasle askok zergatik egin behar dituzte bi lan?

**Irakasleentzako orientabideak:** esan daiteke Yherlin Vilchezek eta munduko irakasle askok ez dutela soldata justurik, prestakuntza nahikorik eta ikasleentzako hezkuntza-programarik edo baliabide egokirik.

Egoera hori hobeto ezagutzeko, banatu gela bost taldetan, eta eman ondorengo testuak eta grafikoak. Horiek irakurri eta begiratu ondoren, eskatu ikasleei irakasle prestatu gutxi izatearen arrazoiak azter ditzaten, beren ezagutza eta egoeran, Yherlinen historian eta lehenago landutako datuekin egindako lanean oinarrituta. Arrazioen zerrenda taularen lehenengo zutabea idazteko eskatu, modu honetan:



## Munduko irakasleak

- a. Hazkunde demografikoa handiagoa da irakasle berriak lortzeko gaitasuna baino. Iparraldeko nahiz hegoaldeko herrialdeetako irakasleen eskasia aurrekaririk gabeko mailetara iritsi da. UNESCOren arabera, gutxienez 15 milioi irakasle gehiago beharko dira munduko pertsona guztiek lehen hezkuntza jasotzeko helburua lortu ahal izateko.
- b. Garapen-bidean dauden herrialdeetako irakasleek ia ikasle-kopuru bikoitza dute, bai oinarritzko mailan bai maila ertainean. Irakasle bakoitzeko ikasle-proportzioa zenbat eta handiagoa izan, orduan eta txikiagoa da ikasketa-mailen eraginkortasuna.
- c. Herrialde boteretsuenetan, irakasle gehienek 40 urte baino gehiago dituzte. Garapen txikiagoko herrialdeetan, berriz, irakasleen herenak baino gehiagok 30 urte baino gutxiago ditu.
- d. Herrialde garatueta lehen hezkuntzako irakasle gehienak emakumezkoak dira (%80), baita Latinoamerikan ere (%78). Munduko beste leku batzuetan, berriz, egoera bestelakoa da: Saharaz hegoaldeko Afrikan %42, herrialde arabiarretan %51 eta Asiaren hego-ekialdean %32. Aldiz, bigarren hezkuntzako irakasle gehienak gizonezkoak dira ia munduko herrialde guztietan.
- e. ELGAko herrialdeetan, irakasle hasiberriek 20 mila dolar baino gehiagoko soldata jasotzen dute urtean batez beste; 15 urte baino gehiagoko esperientzia duten irakasleek, berriz, 30 mila dolar baino gehiago batez beste. Garapen-bidean dauden herrialdeetan, irakasle hasiberriek 5 mila dolarreko soldata jasotzen dute urtean batez beste, eta esperientziadunek 10 mila dolarrekoa, batez beste.
- f. Herrialde garatuenean nahiz garapen-bidean daudenetan, antzeko eskolatze-maila eta lan-eskakizunak dituzten profesionalek baino diru-sarrera txikiagoak jasotzen dituzte irakasleek.


Herrialde askok prestakuntza gutxiko eta gaizki ordaindutako irakasleak kontratatzen dituzte, kostuak murrizteko. Baina estrategia horren ondorioz, kalitatea murrizten da. Landa-eremuetan eta eremu pobreetan, bereziki, estrategia horiek ezartzeko joera dago, eta ondorioz, hezkuntza-desberdintasunak bultzatu eta ugartzen dira.

Ez dago **guztiantzako hezkuntza** lortzerik prestakuntza eta baldintza egokiak dituzten irakasle nahikorik ez badago.

## BIGARREN HEZKUNTZA


- Afrikan, lehen hezkuntzako 3 milioi irakasle gehiago behar dira.
- Brasilen, Bahia eta Pará eskualdeetako lehen hezkuntzako irakasleen %3k bakarrik dute goi-mailako prestakuntza. Sao Paulon, berriz, %42k.
- Estatu Batuetan, pobrezia-maila altua den lekuetan, irakasleen %50ek lana uzten dute lehenengo 5 urteetan, eta ondorioz, esperientziarik gabeko irakasle asko daude leku horietan.
- Libanoko irakasleen %14k baino ez dute jaso berariazko prestakuntza profesionala; Nepalen %16k eta Kongon %57k. Gutxien aurreratutako herrialdeetan %57ko batezbestekoa dute, Saharaz hegoaldeko Afrikan %50ekoa eta Asiako hegoaldean %47koa.
- Argentinako irakasleen %75-90ek lanaldi-erdikoa dute.
- Txinako eta Tuniseko irakasleen %20k baino gutxiagok dute unibertsitateko prestakuntza.
- Tanzaniako eta Cabo Verdeko irakasleen %60k lehen mailako ikasketak bakarrik egin dituzte.
- Ugandan, Togon eta Cabo Verden, irakasleen %50ek baino ez dute jaso prestakuntza profesional berezia.
- Bangladeshko irakasleek 30 eskola-ordu izaten dituzte astero, eta Espainiakoek 20.
- Zambian 2000. urtean lehen hezkuntzako 815 irakasle ihesaren ondorioz hil zirela zenbatesten da, hau da, urte horretan prestatutako irakasleen %45en baliokidea den irakasle-kopurua.

### 1. Grafikoa = lehen hezkuntzan irakasle bakoitzeko dauden ikasleen ratioa



Iturria: UNESCO  
2001 Teachers for  
Tomorrow's Schools.

## 2. Grafikoa = Lehen hezkuntzako ikasle/irakasle proportzioaren batezbestekoak eskualdeka (1990, 1998, 2001) (Hiru urteetako datuak bildu diren herrialdeak; eskualde bakoitzeko herrialde-kopurua ageri da parentesi artean)



1990eko hamarkadan, munduko eskualde guztietan, eskolaratze-adinean zeuden haurren kopurua gehiago hazi zen irakasle-kopurua baino. Ondorioz, geletan haur gehiegi pilatu ziren; herrialde batzuetan, 100 ikasleko gelak izatera ere iritsi ziren.

Irakasle/ikasle ratio batzuk eskola-uztearen ratio altuekin lotuta daude.

Belgikan, lehen hezkuntzako 50 ikasle 4 gelatan banatzen dira. Mexikon, berriz, guztiak gela berekoak dira.

Txaden, irakasle bakoitzeko 69 ikasle daude lehen hezkuntzan; Norvegian 10.

Zambian, berriz, irakasle bakoitzeko 64 ikasle daude, batez beste, lehen hezkuntzan.

Iturria: UNESCO, 2005. Informe Educación para Todos 2005.

Irakasleak eskolara ez joateko arrazoiak	Zerk lagunduko luke egoera hori aldatzen?	Nork alda dezake egoera hori?
Ez daude behar bezala prestatuta	Prestakuntza hobek	Politikariek
Soldatak oso baxuak dira		
Lan-ordu asko dituzte		
GIB birusa dute		

**Galdere:** Zerk lagundu dezake egoera horietako bakoitza aldatzen? Bete koadroa ikasleek emandako erantzunekin.

**Galdere:** Nork du egoera horiek aldatzeko boterea? Idatzi ikasleek esandakoa koadroan. Eztabaidatu nork eta nola lagundu dezakeen, eta utzi ikasleei beren ideiak garatzen.

## 2 Ariketa: Irakasle batek zer baldintza behar ditu bere lana ondo egiteko?

Banatu gela 4 edo 5 pertsonako taldeetan. Talde bakoitzak galdera honi erantzun behar dio:

- Irakasle batek zer baldintza behar ditu bere lana ondo egiteko?

### 3. Grafikoa = Lehen hezkuntzako irakasleen kalifikazio- eta prestakuntza-maila diru-sarrera gutxiko hamalau herrialdetan (1995)

	9 urteko eta gutxiagoko ikasketak egin dituzten irakasleak (%)	Prestakuntzarik gabeko irakasleak (%)
Bangladesh	44	18
Benin	92	1
Buthan	30	8
Burkina Faso	70	27
Cabo Verde	87	35
Etiopia	0	13
Ekuatore Ginea	77	8
Madagaskar	46	10
Maldivak	89	22
Nepal	32	3
Tanzaniako Errepublika Batua	91	0
Togo	77	41
Uganda	91	50
Zambia	24	14


Erantzunak arrazoitzeko, lehen jasotako datuak erabili behar dituzue, eta kalifikazio-mailari eta irakasleen prestakuntzari buruzko taulak aztertu behar dituzue. Ondoren, bateratu talde bakoitzak egindako ekarpenak.

EPT 2005<sup>3</sup> txostenaren 3. kapitulua eta UNESCOrentzako egindako Delors txostenaren 7. kapitulua (*Hezkuntzak altxor bat gordetzen du*) begiratu ditzakezue.

Irakasleen prestakuntza funtsezko adierazlea da hezkuntzaren kalitatea ezagutzeko. Etengabe aldatzen ari den mundu honetako arazoei aurre egingo dieten irakasleak prestatzean, irakatsiko dituzten ikasgaiei buruzko berriazko ezagutzak jasotzen dituzte, praktika pedagogiko eraginkorrak eta teknologiak ezagutzen dituzte eta gai bihurtzen dira gainerako irakasleekin, komunitateko kideekin eta gurasoekin elkarlanean aritzeko.

<sup>3</sup> Guztiontzako hezkuntzaren mundu-mailako segimenduari buruzko txostena, 2005.  
[http://portal.unesco.org/education/es/ev.phpURL\\_ID=35962&URL\\_DO=DO\\_TOPIC&URL\\_SECTION=201.html](http://portal.unesco.org/education/es/ev.phpURL_ID=35962&URL_DO=DO_TOPIC&URL_SECTION=201.html)

4. Grafikoa = Saharaz hegoaldeko Afrikan kalifikazioari buruzko arau nazionalak betetzen dituzten lehen hezkuntzako irakasleen ehunekoa (2001)



Iturria: UNESCO, 2005. Informe Educación para Todos 2005.

## 4. MULTZOA: Zer gertatuko litzateke irakaslerik ez balego?

### Helburua:

Irakaslerik ez edukitzearen ondorioak ezagutzea.

### Edukiak

#### Kontzeptualak

Munduan pertsona askok kalitatezko hezkuntza jasotzeko aukerarik ez izateak dituen ondorioak.

### Jarrerazkoak

Guztion hezkuntza-eskubidea defendatzea.

Norberaren hezkuntza-aukerak eta kalitatezko hezkuntza jasotzeko aukera balioestea.

### Prozedurazkoak

Elkarriketa, entzutea eta trukea.

### Ariketak

1. Irakaslerik gabeko eskola

# 1

## 1 Ariketa: Irakaslerik gabeko eskola

Proposatu ikasleei talde txikitan banatzea, galdera hauei erantzuteko: Imajinatzen al duzue irakaslerik gabeko institutu/eskola bat? Gelan irakaslerik ez izateak zer ondorio izango luke ikasleengan? Zuen irakasleek zer funtzio betetzen dute zuen hezkuntzan?

Ondoren, eskatu talde bakoitzari erantzunei buruz hitz egiteko eta ondorioak idazteko. "Irakaslerik gabeko institutu/eskola bat" izeneko idazlana egin dezakete.

Ondoren, eskatu esaldi hau irakurtzeko eta dioenari buruz hausnartzeko: "100 milioi neska-mutilek eta alfabetatu gabeko 860 milioi pertsona helduk baino gehiagok ez daukate hezkuntza jasotzeko aukerarik, batez ere, prestatutako irakasle gutxi daudelako." Egin gogoeta hezkuntza jasotzeak dituen onurei buruz, eta azaldu proposamenak gainerako ikaskideei.

### Kalitatea oso eskasa da

### Hezkuntzaren egoera munduan

- Haur-hezkuntzako programetako neska-mutilen kopurua ez da aldatu azken urteetan.
- Lehen hezkuntzako ikasleen herena baino gehiago ez da ziklo horren amaierara iristen 41 herrialdetan.
- Herrialde askotan, lehen hezkuntzako irakasleen kopuruak urteko %20 hazi behar du ikasle/irakasle proportzioa 40/1era murrizteko eta, modu horretan, 2015erako lehen hezkuntza unibertsala lortzeko.
- Lehen hezkuntzako irakasle askok ez dute behar adinako kalifikaziorik.
- Gobernuak eta garapenari laguntzeko erakundeek ez diete lehentasunik eta finantziario nahikorik ematen gazteen eta helduen oinarritzko heziketarako programei.

Iturria: UNESCOren Hezkuntza Guztiontzat, 2006 programaren segimendurako urteko txostena.

## 5. MULTZOA: Zer egin dezakegu?

### Helburua:

Irtenbideak eta konpromisoak identifikatzea HG lortzeko (Hezkuntza Guztiontzat).

### Edukiak

#### Kontzeptualak

MH (milurtekoko helburuak), irakasle-beharra, agintariei konpromisoa eskatzea.

#### Jarrerazkoak

Parte-hartzea, erantzukizun soziala.

### Prozedurazkoak

Talde-lanak: hausnarketa, elkarriketa, eztabaida eta ekintza.

Txostenak / pankartak / posterrak egitea.

### Ariketak

1. Zer egin dezakegu?
2. Azal diezaiegun agintari politikoei irakasleen egoera.

# 1

## 1 Ariketa: Zer egin dezakegu?

**Irakasleentzako orientabideak:** Banatu ondorengo testua ikasleei, eta herrialdeek beren eginbeharrak bete ditzaten ikasleek egin dezaketenari buruz hitz egitera bultzatu.

Guztiontzako kalitatezko hezkuntza lortzeko beharrezkoa da nahikoa irakasle izatea, baldintza duinetan lan egingo dutenak eta behar duten prestakuntza jasoko dutenak.

Horretarako, gobernuek lan egin behar dute. Espainiako kanpaina bultzatzen dugun erakundeon ustez, iparraldeko nahiz hegoaldeko herrialdeek hainbat eginbehar bete behar dituzte, guztiontzako hezkuntza lortu ahal izateko.

### Zein dira Espainiako lankidetzaren egitekoak?

- Diru gehiago ematea (garapenerako laguntza ofiziala) hegoaldeko herrialdeen oinarritzko hezkuntzarako.
- Diru horrek ez du "laguntza lotua" izan behar, alegia, dirua jasotzen duten herrialdeei ezin zaie jarri baldintza gisa Espainiako enpresak kontratatzeiko beharra, adibidez, eskolak eraikitzeiko.
- Espainiarekin zorrak dituzten herrialdeek zorra ordaintzeko behar duten dirua oinarritzko hezkuntzarako erabiltzen uztea.
- Irakasleen prestakuntzari lehentasuna ematen dioten eta irakasleen lanaren duintasuna bultzatzen duten hegoaldeko herrialdeetako ekimenak bultzatzea.

### Zein dira hegoaldeko herrialdeen egitekoak?

- Hezkuntzarako diru gehiago bideratzea.
- Irakasleek beren lana egiteko kalitatezko prestakuntza jasoko dutela ziurtatzea.
- Irakasleei modu egokian ordaintzea eta hezkuntza-politiketan parte har dezaten uztea.
- Gela bakoitzeko ikasle-kopurua murriztea eta gelen egoera orokorra hobetzea.



## 2

### 2 Ariketa: Txosten bat egitea: Azal diezaiegun agintari politikoei irakasleen egoera

Ariketa honen bidez, Ekintzarako Munduko Astean agintari politikoei aurkeztuko zaizkien txostenak / pankartak / horma-irudiak egin nahi dira.

Ekintzarako Munduko Astean zehar, mundu guztiko pertsonak irakasleen egoerari buruz egin dituzten hausnarketak aurkeztuko dizkiete agintari politikoei.

Espanian, hezkuntzaren eta irakasleen egoerari buruz ikasleek egin duten lana aurkeztuko zaie agintari politikoei txosten baten bidez, eta haien eginbeharrak bete ditzatela eskatuko zaie.

#### Nola egingo dugu?

Ekintzarako Munduko Astean hainbat jarduera egingo dira Espainian, agintariei **irakasleen egoera erakusteko**.

Proposamen didaktiko honen bidez egindako hausnarketen eta lanaren ondorioak txostenetan, pankartatan, posterretan edo zure eremurako adierazitako formatuan jasoko dira. Lana banaka edo taldeka egin daiteke, eta ikasleek nahi duten teknika eta euskarria erabil dezakete: plastika, ikus-entzunezkoa...

Dena dela, erakundeak jakinaraziko du ikastetxe bakoitzaren eremuan zer jarduera egingo diren Ekintzarako Munduko Astean eta nola hartu behar den parte.

#### Eta Interneten?

Hezkuntzaren aldeko Munduko Kanpainari buruzko Espainiako web gunean ([www.cme-espana.org](http://www.cme-espana.org)) modu sakonean ematen da kanpainaren berri: mundu guztian egingo diren jarduerak eta munduko hezkuntzaren egoera azaltzen dira.

Egindako lana zure herrian antolatutako jardueretan parte hartzen duten politikariei aurkezteaz gain, Hezkuntzaren aldeko Munduko Kanpainari buruzko Espainiako web gunearen bidez ere egin daitezke eskaerak ([www.cme-espana.org](http://www.cme-espana.org)).

# EKIN!

**Hezkuntzaren aldeko Munduko Kanpainak** espero du 2006an 2005ean baino pertsona gehiago –bost milioi pertsona– mobilizatzea. Haur guztiek ikasteko aukera izan dezaten eta irakaskuntza kalitatezkoa izan dadin, irakasleak behar dira.

**Guztiontzako Hezkuntza** lortzeko aitzindaritza politikoa izan eta baliabide gehiago erabil ditzaten, presioa egin nahi zaie arduradun politikoei; eta horretarako, hain zuzen ere, antolatu du Hezkuntzaren aldeko Munduko Kanpainak "Neska-mutil guztiek behar dituzte irakasleak" kanpaina.

**Irakasleen aldeko kanpaina hori bi etapatan gauzatuko da.**

Bi etapak zuen egoeraren arabera egoki ditzakezue, baina ziurtatu gobernariak ideia honetaz jabetzen direla:

**NESKA-MUTIL GUZTIEK  
BEHAR DITUZTE  
IRAKASLEAK**

## 1. ETAPA:

### Dosierra egitea

Irakasleei eta **Guztiontzako Hezkuntzaren** kalitateari buruzko dosierra egin behar dute neska-mutilek. "Irakasleen kasua" izenburua izango du, eta gai hauetako bati edo gehiagori buruzkoa izan behar du:

- Irakasle bat behar dugu; izan ere...
- Bidali irakasle bat nire lagunari. Nire lagunak ez du irakaslerik; izan ere...
- Guztiok kalitatezko hezkuntza izan dezagun ezinbestekoak dira irakasleak; izan ere...

Jarduera hau **Munduko Ekintza Astea** prestatu bitartean gauzatu behar da.

## 2. ETAPA:

### Entzunaldi nagusia

Estatu eta eskualde mailako topaketa publikoak antolatuko dira, Munduko Ekintza Astearen identifikatutako eta aipatutako gaietan ahalik eta arreta handiena jartzeko. Topaketak "entzunaldi" edo "bista" moduan egingo dira. Herrialde osoko dosierrak elkartu, eta arduradun politikoen aurrean irakasleen defentsa egiteko aurkezpenean erabiliko dira.

# NESKA-MUTIL GUZTIEK BEHAR DITUZTE IRAKASLEAK

Zambian, lehen hezkuntzan irakasle bakoitzak 64 ikasle ditu batez beste.  
Ugandan, irakasleen %50ek ez du trebakuntza profesional espezifikorik izan.



[www.cme-espana.org](http://www.cme-espana.org)

Antolatzaileak:



ALBOAN



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa  
Giza Eskubiderako, Enplegarako eta Gizarte-erako Departamentua  
Departamento para los Derechos Humanos, el Empleo y la Inserción Social



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia